

Parekidetasuna eta sexu-identitateen eraketa euskal artzain-nekazari jendartean

Anne-Marie Lagarde
UPPAko doktorea

Artikuluaren xedea zera da: euskal artzain-nekazari jendarteak oinarri parekide ez-totalitarioa zuela erakustea, oinordetza-legeei jarraituz.

Oro har zabaldua den adituen iritziaren aurka, sexuen arteko parekidetasuna eta lege sinbolikoaren begirunea bateragarriak ziren, euskal oinordetza-sistemak bere gain hartzen baitzuen intzestuaren debeku kolektiboaren ezarpena. Ezarpen hori kontuan izateak —ezkontza-araudiari eta ahaidetasun-sistema originalari lotua— etxeko gazteen patuari buruzko balio-iritziak gainditzea ekar lezake. Parekidetasunaren berezitasun juridikoa («ama-eskubide»aren antzekoa) azal daiteke sekula ikusi gabeko genero-identitateen eraikuntza bati esker, zeren genero-identitate hori hizkuntza performatiboaren bidez eratzen baita, historiaurretik datorren HI bigarren pertsonako izenordainari lotuta.

GAKO-HITZAK: Artzaina · Oinordetza · Matriarkalismoa, Parekidetasuna · Ezkontza-arauak · Sexu-identitateen eraketa · Noka/Toka.

Equality and sexual identity formation in the Basque society of farmers and shepherds

The aim of the article is that there was a basis of equality non-totalitarian in the Basque society of farmers and shepherds, in accordance with the laws of inheritance.

In opposition to the generally widespread opinion of experts, legal equality between the sexes and respect to the symbolic law were both possible, because the Basque system of inheritance assumes the imposition of the collective prohibition of incest. Taking into account this imposition —related to the rules of marriage and the original inheritance system— could lead to overcome the value judgments about the fate of the family's young people. The legal singularity of equality («mother-right» similar) can be explained by a construction of gender identities ever saw; this gender identity is formed through the performative language, that is, from the prehistoric second person pronoun HI.

KEY WORDS: Shepherd · Inheritance · Matriarchalism · Equality · Rules of marriage · Sexual identity formation · Noka/Toka.

Jasotze-data: 2014-05-18. Onartze-data: 2014-12-08.

1. Marko teorikoa: sexuen arteko simetria

Sexuen arteko tratamendua parekidea izan al da inoiz humanitatearen historian? Gaur egun, ez dela inoiz izan pentsatzeko joera dago —edo oso garai urrun batean izan zela, mitiko bilakatu den balizko iraganean—.

Cl. Lévi-Strauss (1958) etnologo frantziarraren aburuz, argi zegoen ezen, tratamendu asimetricoa jendartearen arau unibertsala izateaz gain, beharrezko araua ere bazela, non hark «natura»tik «kultura»ra igartzeko gakoa ikusten baitzuen. Hark aztertu zituen jendarteetan parekidetasunezko tratamendu-frogarik aurkitu ez zuenez, posizio asimetricoak eta tratamendu asimetricoa gainjartzen zirela ondorioztatu zuen.

Argiago nahiz zalantzazkoa, Françoise Héritier haren ondorengoak zera esan zuen «Nagusitasun maskulinoa ikuspegi antropologikoan» izeneko kapitulu batean (1996: 208):

Egia da orain arte ezagutzen diren jendarte guztiak ez direla guztiak deskribatuak izan. Eta izan direnean, ez da nahitaez izan gizonen eta emazteen arteko harremanen izaera nabarmentzeko moduan (...) Gainerako jendarteak aztertzen direnean, aurreiritzi bikoitzak, etnozentrismoa eta androzentrismoa, eragiten du azterketan; gure jendartearen begiekin eta, batez ere, gurean menderatzen duen gizonaren begiekin aztertzen baitira.

2. Gaiaren aurkezpena

2.1. Euskal jendarte tradizionala, eztabaidagaia

Nahiz eta historialariek, antropologoek, etnologoek edo abokatuek ondo deskribatu duten jendarte hau, eta hemen zentratuko naiz, antropologia orokorraren ezjakintasun batzuek eragiten dute deskribaketa horietan, emazteei ematen zaien lekuari dagokionez, batez ere.

Arrazoa zera da: bertako zenbait ikertzailek Antzinako Erregimen Zaharrean emazteen lekua *etxean* azpimarratzen duten bitartean, haien ondoan, historialari, soziologo eta etnologoen korrante batek, aitzitik, garrantzia txikiagotzen dio haietako norbaitek ironiaz Pirinioetako «feminismoa» deitu zuenari. Oro har, gehienak A. de Otazu Riana historialariarekin (1973)¹ bat datoz. Azken horrek uko egin dio sendoki euskal jendartea parekide izan litekeen ideari.

Soziologoaren aburuz, *etxeko jendarteak* (seme-alaben batentzako jaraunspenaren sistema), zeinetan euskal etxea kokatzen den Le Play-en² lanen ondoren, printzipio ez-parekideetan oinarritzen diren elkarteak dira. Dena gertatzen da

1. Gogoangarria da haren adierazpen bortitza «euskal berdintasunaren gaineko istorio hauek» (aldarrikatzaileek zabaldua —Larramendi...— boteretsuen estatusa sustatzeko): «Historias escritas para débiles mentales o cuanto menos para seres que han renunciado ya hace tiempo a la tarea de pensar de cuando en cuando».

2. «Etxe tronkala» edo «familia tronkala» Frédéric Le Play-k, XIX. mendeko jendarte-zientzien sortzaileetarikoa, aipatzen duen familia-eredua. Bereizi egiten ditu «familia patriarkala» (seme-alaba guztiak ezkondu eta aitaren etxean geratzen dira, aitaren autoritatearen mendean) eta «familia ezegonkorra» (seme-alabek gurasoen etxetik alde egiten dute, euren kabuz bizitzeko gai direnean, eta guraso helduak bakarrik utzita). «Familia tronkal» izena 1857an agertzen da lehenengoz Pirinio

oinordekotasun osoaren eta oinordekotasun maskulinoaren arteko desberdintasunak bere esangura galduko balu bezala, haiek deituriko etxeko gazteen bazterte edo sakrifizioaren aurrean.

Ikertzaile batzuek euskal jendarteak (eta Pirinioetako jendarteak) matriarkatuaren arrasto nabariak dituela aipatzen duten arren —Isaure Gratacós-ek (1987) «jendarte matristikoaz» hitz egiten du eta Andrés Ortiz Osés-ek (1988), berriz, «matriarcalismo» hitza darabil—, agertzen duten ikuspuntua kontuan hartuta, ez da gaiaren eztabaidan aurrera egiteko. Izan ere, oraingoz, gorren arteko elkarrizketa baino ez da, «errealisten» aldekoak (kasurik onenean, «emazteak gizonak zituen eskubide berak zituela, baina etxean soilik»³ diotenak) eta «matriarkatua» defendatzen dutenak; azken horiei «idealistak», «atzerakoiak» edota «falokratak» deitu izan diete «errealisten» aldekoek. Ni ez naiz horretan sartuko. Arazoa, batez ere, zera da: alde batetik, eztabaidatik ateratzeko kontzeptu-tresnak zehaztea eta, bestetik, «matriarkatua» edo «ama-eskubidea» identifikatzea eta argitzea. Lehenik, egin dezagun balantze bat jakiteko nola den eta izan den ulertua zientzia sozialen historian.

2.2. «Matriarkatua»: oso gai eztabaidatua

XIX. mendetik hona, gai gutxi sortu ditu horrenbeste pasio eta nahasketa. Hainbat arlotan, hala nola zuzenbidean, psikoanalisian, arkeologian eta antropologian, botere maskulinoa hertsiki lotzen zaio emazteen zoriaren eta zapalkuntzaren izaera politikoari.

2.2.1. Gainbegirada arina gaiaren ikuspuntuei, XIX. eta XX. mendeetan

Patriarkatuaren eta matriarkatuaren arteko oposizioaren gaineko eztabaida XIX. mendean hasi zen, hipotesi ebolutiboetan oinarrituta. Garaiko teorialari eta legegileen arabera, patriarkatua (sistema juridiko-politiko zeinetan autoritatea eta salgaien zein pertsonen gaineko eskubideak aitarenak diren eta ondore patrilineal deitutako araudi bati zor zaizkion) baino lehenago, aurretiko aldi bat edo «matriarkatua» izan zen. Engels-ek emearen porrota ikusi zuen patriarkatuan. Bachofen-ek (Barilier, 1996), antzinako kulturaz eta erudizioz betea, bere *Das Mutterrecht* magistralean, humanitatearen historian hiru aro izan zirela imajinatu zuen: *heterismo afroditikoa* (sexu-promiskuitatearen aldia eta «aitarik gabeko» umeen aldia), *demeterismoa* (maitasunaren aldia eta bakearen urrezko aroa, aitaren estatusa legitimatuz, baina amari lehentasuna emanaz) eta patriarkatua (maskulinoaren garaipena, Mendebaldeko kontzientziaren sinboloa, zibilizazioaren goi-mailako aldia eboluzionistentzat). Hark ez du «matriarkatua» hitza inoiz erabili, «ama-eskubidea» baizik.

Garaietako Cauterets-eko antzinako familia, Mélouga familia, aztertu zuenean. Giltza izango da haren lanean. Le Play-k parekatuko du Mélouga familia euskal etxearekin, haren ustez, «familia tronkal»aren eredurik argiena (Le Play, 1855: 327). «Familia-tronkal»ean, «ezkonduta dagoen seme-alabetariko bat geratzen da gurasoekin bizitzen, antzinako ohiturei jarraituz. Gainerako seme-alabak etxetik at biziko dira edo gurasoen etxean geldituko dira ezkondu gabe», (Le Play, 1994: 9). Mélouga etxeak seme edo alaba nagusiaren ohiturari jarraitzen dio: alaba zaharrena, Savina, etxeko premua da, eta bertan harmonia eta prosperitatea izango da nagusi, ahizpa batek berari dagokion ondarearen zatia eskatuko dion arte. Etxea hondatuta geratuko da.

3. ETXEA euskal jendartearen oinarria dena ahaztuz.

Haren teoriak hainbat pertsona liluratu zuen arren, gaur egun, mito-kategoriara baztertuta izan da, ustez Egeo itsasoko eta Ekialde Hurbileko historiaurrean «Amaren erreinaldi»aren existentzia frogatzeko, mitologia greziarren irakurketa interesatua egin ei zuela aitzakiaren pean: «ama-eskubidea» izan denik ez da inoiz frogatu.

Bachofen-en aurkako objektzioei Timothy Taylor arkeologoarenak gehitzen zaizkie. Azken horiek Marija Gimbutas arkeologoak (1996) eta James E. O. (1989) historialari erlijiosoak zabaldu zuten historiaurreko Europako jainkosa amaren adorazioaren teoriaren aurka jotzen dute.

Timothy Taylor-ek frogatu nahi izan du Europan boterea gizonen domeinua izan dela beti. Hala ere, Mesolitikoan parekidetasun erlatiboa bizi izan zela onartzen du, orduan emazteak autonomoago bilakatu zirelako elikaduraren aldetik, eta, era berean, lurra sinbolo femenino bihurtu zen. Haren iritziz, parekidetasun horrek ez zuen iraun eta Neolitoak bortizkeria maskulinoaren garapena ekarri zuen.

2.2.2. Matriarkatua eta matrilinealismoa

Bi kontzeptu hauek nahasiak izan ziren, antropologo eta etnologoek, munduan zehar egindako ikerketa anitzen bidez, desberdintasuna argitu zuten arte (Bachofen ere akats horren partaide izan zen). Sistema matrilineala, agerikoa historiaurreko eta historiako hainbat jendartetan, nabarmendu egiten da, antolaketa androzentrikoaren itxuraz agertu arren: «(...) hainbat lekutan, jendarte patrilinealetan moduan, non aitek ondasunak eta boterea euren semeei ematen dizkieten, amaren nebek, amaren osabek, ematen dizkiete euren iloba arrei» (Héritier, 1996: 211).

Emaztea, leku eta aro zehatzetan, trukerako objektua izan zen: hauxe da naturatik kulturara pasatzeko ezinbesteko norabidea, intzestuaren debekuaren legea, Lévi-Strauss-en teorian. Haren aburuz, etnologo guztiek aztertu dituzten jendarteetan agertzen den aita edo amaren osabak frogatzen du patriarkatuak eta kulturak bat egiten dutela. Izenak, aitarenak edo amaren osabarenak, gizona du ardatz. *Etxeko jendarteetan*, euskal jendartea kasu, haren iritziz, aitarengandik semearengana joaten da, eta aitagarrearengandik suhiarengana, suhi ezkontzetan («mariage en gendre»), hots, neska-oinordearekin ezkontzen den kasuetan. Mutilik ez dagoen kasuetan, neska «desesperantzaren aurreko irtenbidea» baino ez da gurasoentzat! (Bour-dieu, 1972: 1107).

Psikoanalisiak aitaren lehentasunaren teoria indartu du, Sigmund Freud-ek *Totem et tabou* lanean garatu zuen horda primitiboaren mitoan oinarrituta. Eragile logikoa, mito horrek erlijio eta jendarteen jatorriari buruzko azalpen orokorra eskaintzen du, baita intzestuaren debekuaren oinarriari buruzkoa ere. Izan ere, *Totem et tabou* sortzean, Freud-ek, Bachofen-en erreferentzia eginez, ez du alboratzen «ama-eskubidea» izatea (1981 : 77), hots, «demokrazia primitiboa» adierazten duen eskubide parekide bat, non bermea amarenganako sinesmena den. Iruzkina horrek gidatu du nire gogoeta euskal jendarteari buruz.

3. Lanaren helburua: ikerketaren materiala, xedea eta erabilera

Artikulu hainbat dokumentu erabili ditut: jatorrizko testuak, XIII. mendetik aurrera idatziak izan ziren euskal zuzenbidearen antzinako oihurretan oinarrituta; testu juridikoak eta historikoak; hainbat ezkontza-kontraturen azterketa, eta inkesta soziolinguistikoak. Era berean, DEA batean (Lagarde, 1995⁴) egindako ikerketa bat Euskal Herriko erabilera alokutiboei buruzkoa eta ahaidetasun-sistemari buruzko gogoeta bat (Lagarde, 2006).

Artikuluak honako tesi hau frogatzea du helburu: **euskal jendarte tradizionalak ohiko jendarte patriarkalen logika desberdina** duela, nahiz eta intzestuen debekuaren lege sinbolikoa errespetatu.

Emile Cordier-en lanean oinarrituta, (1996: 1.273-1.287), Bachofen-ek erabili zuen lehenengoz «ama-eskubidea» testuinguru horretan. Esamolde hori are egokiagoa iruditzen zait arlo juridikoan, *etxean* ez baitzegoen aitaren lehentasunik edo amaren osabaren autoritaterik. Edozelan ere, nik «jendarte parekidea» edo «jabekidetz» erabiliko dut, artikulu honetan ez baitut garatuko sinesmen matriarkalaren analisia, «ama-eskubide» hitzaren erabilera erabat justifika lezakeena.

Parametro anitz dituen interpretazio bat garatu nahi dut, ondokoak besteak beste: oinordetza-legeak, ahaidetasun- eta kidetasun-sistemak, eta hizkuntza. Etxeko gazteen patua ez zegoela bazterketari lotuta azpimarratu nahi dut, horretarako parekidetasunezko koherentzia bateratzaile bat nabarmenduz. Euskara, euskal hizkuntza, sistema horren giltza da, historiaurretik datorren HI bigarren pertsonako izenordainari lotutako hizkuntza performatibo bati esker. Performatibotasun horrek sexu-identitateak eratzean lagundu du eta horiek gabe ezin da jendarterik eratu. «Ama-eskubide»aren gaineko beste ideia bat ezarri ahal izateko, folklore idealizatutik (balizko urrezko aro bati lotuta) edota eboluzio-susmo batetik at.

4. Lanaren garapena

Gure azalpenak hiru zati izango ditu:

1. *Etxea*: sexu eta belaunaldien arteko trataera simetrikoa.
2. Exogamia-printzipioa eta ezkontza-araua. Euskal ahaidetasun-sistema.
3. Lege sinbolikoa eta jende-berdintasuna: hizkuntzaren kontua.

1. *Etxea*: sexu eta belaunaldien arteko trataera simetrikoa

1.1. Euskal etxearen ezaugarriak

Maité Lafourcade-k (1994) oihuren gaineko idazkietan eta XVIII. mendeko ezkontza-hitzarmenetan definitzen duen moduan, **etxea**, euskal etxea, ondare orohartzailea da, hots, etxea eta eraikuntzak, altzariak eta ondasun higiezinak, abereak, nekazaritza-lurrak, komunalei dagozkien eskubideak, eliza, hilobi eta izenaren eskubideak bere egiten ditu. Etxea ondare ukiezina da, «tronkalitate»an datza Hego Euskal Herriko probintzietan (Nafarroa, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaia). Inork ezin du erabili bere kasa. Alaba edo seme bakar batentzat izan ohi da.

4. Nire doktorego-tesian garatutako lana (2000). DEA: Diplôme d'Etudes approfondies: hirugarren zikloko diploma bat, doktorego-tesia baino lehen.

Etxearen berezitasuna zera da: ezkontzaren bidez jasotzen da, ez gurasoen heriotzaren ostean. Ohiko arauak premu baten eta premua ez den beste baten arteko ezkontza zekarren, ondasunen pilatzea tratatzeko, eta bikote gaztearen etorrera, etorkizuna bermatzen duena, izango da nagusi.

1.2. Etxe sistemaren historia eta hedapen geografikoa

1.2.1. Foruak eta ohiturak

Foruek eta ohiturek azalarazten dute euskal eremuaren berezitasuna. Pirinioen alde bietan agertzen dira, baita euskaldun izateari utzi dion eremuan ere (Gaskoinia eta Bearn Pirinioen iparraldean, eta Aragoi hegoaldean). Indarrean XIII. mendetik XVII. mendera arte, Maïté Lafourcade-ri jarraituz, deretxo edo zuzenbide publikoaren eta pribatuaren arteko koherentzia handia dute. Pirinioetako antzinako zuzenbidea dute jatorrian (Poumarède, 1972).

Ohiturak aldatu egin dira, mendeek aurrera egiten zuten heinean eta indarra galdu erromatar zuzenbideak maskulinitatearen pribilegioa ezartzen zuen heinean. Baina ezarpen hori ez zen ohikoa. Izan ere, praktika hauek jasotzen zituzten foruak idatzi egin ziren erromatar legeak atzera egiten zuenean Mendebaldean eta, zuzenbide kanonikoaren laguntzaz, antzinako ohiturak mehatxatzen hasi zirenean (Galindez, 1948). Bertakoek antzinako ohiturak zaindu nahi izan zituzten eta horrek frogatzen du teorikoak baino zerbait gehiago zirela.

Foruek lurren erregimena mugatzen zuten, etxe edo familien arabera: jabetza kolektiboa familiarena zen, ez etxeko jaunarena (*pater familias*) (Lafourcade).

Ekonomia eta erakundeen beste eremu bat lur komunalek osatzen zuten. Komunalak eskualde edo parrokia horretako etxeko andere edota jaunek kudeatu eta ustiatzen zituzten, adostasunean eta parekidetasunean.

1.2.2. Euskal foruen berezitasuna: oinordetza (Cordier, 1869)

Aipatu dugun moduan, euskal zuzenbidearen berezitasunak, Ipar Euskal Herrian, zaharrena izatearen erabatekotasuna eta «jaun-andere zahar zein gazteen jabekidetzaz» dira. Lehenengoak, ez-sexista, premua alaba zein semea izan daitekeela ebazten du. Bigarrenak boterea ematen die bikote gazteari zein zaharrari. Eskubideen erabateko parekidetasuna dago bietan. Herentziaren zatia den ondare sinbolikoa edo etxeko izena (domonimoa), ama edo aitaren bitartez jasotzen da, zaharrena izatearen legearen arabera. Abadeek patronimikoa ezarri duten arren, XVII. mendetik aurrera parrokiako erregistroetan (Estatu Zibilak hartuko duena), oraindik dago indarrean!

Testuetan, zaharrena izateak ez du zalantzarik: herentzia jasoko duen premua «lehen da, semea edo alaba, berdin-berdin» (Grosclaude, 1993: 101).

Jabekidetzaz-sistemari dagokionez, sistemaren giltza, argi baino argiago agertzen da (bi termino agertzen dira: jabekidetzaz edo jabekidetasuna) XVI. eta XVII. mendeetako ohituretan. Indarrean zegoela, XVIII. mendeko ezkontza-hitzarmenetan frogatzen da. Nafarroa Behereko foruek zera adierazten dute:

Semeak edo alabak, premuak, ezkonsari-hitzarmenaren arabera ezkonduak, euren gurasoekin batera, ondasun eta arbasoen ondarrak «jabekideak» izango dira (...) eta euren beharrak asetzeko erabil dezakete ondarearen erdia, euren jabe baitira⁵ (Goyhenetxe, 1985: 203).

Nafarroa Beherean eta Lapurdin bezala, Zuberoako ohituren arabera bikote zahar eta gazteen arteko desadostasunik balego:

Lehenak, semea edo alaba, bere dotea gurasoei eman dien kasuetan (...) etxetik kanpo bizitzera joan nahi badu, eska diezaike, horrela nahi izanez gero, bere zatia. Arbasoen ondasunen erdia emango zaio, berezia eta zatituta, eta berak sortuko diren gastuen erdia bereganatuko du, beste erdia gurasoei dagokie⁶... (Grosclaude, 1993: 90).

XVIII. mendeko ezkontza-hitzarmenetan frogatuta geratzen da jabekidetzak jarraiki izan dela (Lafourcade, 1989).

Hego Euskal Herriko probintzietan, zer?

Arau berdinak zeuden, baina premua gurasoek aukeratzeko eskubidea zen nagusi. Goiko ibar nafarretan, noizbehinka maskulinitatearen pribilegioa agertzen bada ere, alaba premuaren hautua nabarmen berriztu zela dirudi. Horrela da Etxalarren, William A. Douglass-ek 1842-1960 urteetan egon ziren heriotzak aztertu zituen herria (Le Play, 1994: 227). Erronkarin, 1684an, patronimikoa baztertua zen, *domonime* parekidea lehenetsiz (Orpustan, 186: 3).

Gipuzkoan, jauntxoan artean, Gaztelako usadioei eta maskulinitatearen pribilegioari lotuta, premuen % 38 neskak dira (Oliveri-Corta, 2001: 174). Era berean, frogatuta dago abizena amek transmititzen zutela, nahiz eta patronimikoa garai batetik aurrera erabilia izan. Batzuetan, ezkontzaren arau tradizionala baztertzen da, premuen arteko ezkontza eta ondasunen pilaketa bultzatzeko. Izan ere, batere patriarkala ez den *condominium* antzekoa sortzen da gurasoen eta gazteen bikoteen artean. Eta desadostasuna dagoenean, ondarearen gozamina edo usufruktua erdibanatzen da (Oliveri Korta, 2001: 199). XV. mendean, errege-ordenantza batek baieztatzen du Oñatin etxe berean bizi diren belaunaldiak ez direla desjabetuak izango (Azpiazu, 1995: 45-46). Argi dago euskaldunen jabekidetzari loturik dela.

Jabekidetzak ez da Europako gainerako sistema juridikoetan (Lafourcade, 1980: 55). Kontzeptu horrek irudi soziopolitiko berezia adierazten du, ***sexuen zein belaunaldien arteko parekidetasuna azpimarratzen du, ez norbanakoena.***

5. «Les fils et les filles, héritiers et héritières, mariés au moyen de la constitution de la dot, seront faits co-seigneurs avec leurs père et mère propriétaires des biens et possessions de papouage et avitins [...] et ils pourront user et disposer en leurs nécessités de la moitié de ces biens comme vrais seigneurs et maîtres».

6. «Si le premier, fils ou fille, qui a donné sa dot à ses père et mère [...] veut habiter à part, il peut si bon lui semble demander le partage. On doit alors lui donner la moitié des biens papouagers, à part et divis, et il supporte la moitié des charges qui y incombent, l'autre moitié demeurant à ses père et mère».

Euskal zuzenbideak ez dauka zerikusirik frantses edo gaztelar zuzenbideekin. Gizonezkoen menderakuntza eta gerontokrazia nekazari-artzain euskal jendartearen oinordetza-printzipioetatik at zeuden. Godo edo frankoengandik jasotako «aristokrazia» kontzeptu feudaletik erabat urrunduta, jabekidetzak hitzak bikotekideen parekidetasuna nabarmendu nahi du, baita haiei zegokien noblezia ere, hots, etxearen biziraupena ziurtatzeko ugalketa-prozesua.

Matrize parekide hori alda daiteke euskal Pirinioen esparruan, ezkontza-araua gorde den, edo euskal hizkuntza gorde/galdu den.

1.2.3. Bearnoko eta Pirinioetako ohiturak

Bearnoko goi-ibarretan eta erdialdeko Pirinioetan agertzen da premutasun osoaren eskubidea, baita ondasunak ez pilatzearen ezkontza-araua ere; aldiz, sistemaren jatorria Euskal Herrikoaren berdina bada ere, jabekidetzak edo bikoteen arteko boterearen banaketa galdu egin da, autoritate patriarkala da nagusi.

Terminologia iraingarria agertzen da foru hauetan, etxeko gazteen (mutil) aipatzean, menpeko bezala jarritz: «Barèges-en (haiek) *esclaus* ('esklaboak') deitzen dituzte, eta Bearnoko Foruetan *sterlès ou esterlès* ('antzuak')» (Morère, 1977). Ez da horrelako terminologia iraingarririk euskal ohituretako testuetan. Adibidez, ezkondu gabeko etxeko semeari *donado* ('emana') deitzen diote.

Eraldaketa bat gertatu da erromatar hizkuntza erabiltzen den zonaldeetan, bertan antzinako jabekidetzak ordezkatu da eta gazteak (mutilak) debaluatzen dituen sistema bihurtu da (cf 3-4).

Adibide hauek Lévi-Strauss-en *filiation* eta *mariage en genre* ('suhi-ezteia') teoriak⁷ egokiak dira Bearnoko edo Pirinio Garaietako etxeetan, non autoritatearen printzipioa ez den partekatua; baina, aldiz, ez zaio ondo lotzen euskal jabekidetzari. Horrek ez baitio logika patriarkalari erantzuten.

1.2.4. Sexuen trataera simetrikoaren esparruak euskal etxean

Parekidetasunaren xedea hainbat arlotan agertzen da:

- Etxearen funtzionamendua eta (ab)izenaren transmisioa.
- (Premu ez diren) gazteen alde egitea amaren etxetik.
- Zaharren (premu) eta (premu ez diren) gazteen arteko aliantza.
- Sexu-diskriminazio eza ezkonsaria dela-eta. Neska eta mutil gazteek euren ematen dute aliantza-etxean eta *conjoints adventices* ('ezkontide erantsiak') bihurtzen dira.
- Hildako ezkontide baten ordezkapenak, haren anaia edo ahizparen bidez (jendarte patriarkalen lebiratuaren edo Jacob-en aurkako sistema), lau egoera dakartza: 1. Andere alargun premua berrezkondu da bere koinatua-ekin eta hark ordezkatu du hildako anaia. 2. Gizon alargun premua berrezkondu da bere koinatarekin eta hark ordezkatu du hildako ahizpa. 3. Ezkontide erantsi alargunaren berrezkontza koinatarekin, hildako andere

7. 2.2.2. oharra, 8. or.

premuaren etxera. 4. Ezkontide erantsi alargunaren berrezkontza koinatua-
rekin, hildako gizon premuaren etxera (Lagarde, 2006).

1.3. Hedapen soziopolitiko

Oinarrizko zelula soziopolitiko etxea da, izena barne. Etxea erdi-mailako egitura sozialean kokatzen da, hots, auzokide diren lehenengo lau etheen multzoa (*lehen auzoak*), elkarren laguntza eta elkartasunaren harremanek lotuta (Ott, 1993: 229-230). Sare hauek auzoaldea osatzen dute.

Asmo orokorra etheen arteko elkartasun-harremanak sortzea zen, seme-alaben dohaintzari esker. Etxe ahaidetuen dohaintzan oinarritutako zirkuituak osatu du euskal mundu sozialaren paisaia. Bere itxuratze politikoa baldintzatu du eta, horrela, etxe bakoitzak bere izenez hitz egin dezake herriko biltzarretan: balio bereko bozak ziren denak, aberastasun-maila kontuan izan gabe. Egoera bera izan zen piriniotar etxeetan.

Logika politikoak honako eskema honi jarraitu zion:

- Oinarrizko irizpidea bikote gazte zein zaharren jabekidetzat izan zen, aita edo aitonaren lehentasunik gabe.
- Ordezkatze-sistema bat zegoen herriko biltzarretan etxearen izenean mintzatzeko.
- Bigarren ordezkatze-sistema bat zegoen, aginte inperatiboa zuena, herriko biltzarretik herrialdeko biltzarrera (izen desberdina zuena, hego edo iparraldeko lurraldeen arabera: *Biltzar, Silviet, Cortes, Juntas*).

1.4. Emazteen lekua

Euskal eta piriniotar emazteen egoerak salbuespenezkoa dirudi Mendebaldean, Antzinako Erregimenean (Gratacos, 1987), zeren, euskal/piriniotar zuzenbidearen arauak gainerakoekin alderatzen badira, oso alde handia baitzegoen. Autoritatea gurasoen bikoteari zegokion, ez zen inoiz izan *pater familias*-i dago-kion botere erabatekoa edo emazteen mendekotasuna zekarren antzeko erakunderik edo *mundium* germanikorik. Ezkondu gabeko emaztea autonomoa izaten zen eremu zibilean.

Etxean, etxeko andereak, amak, lehenengo postua betetzen zuen (semearen emazteari *errena* edo *erregina* deitzen diote). Alaba oinordeak bere (etxeko) (abi)izena ematen die senar eta seme-alabei. Izen-emate horren arrastoa Euskal Herri osoan agertzen da.

Zuberoa Garaian alabak oinordetzari eustea bizi-bizirik egon da. Batzuetan, premia seme-alaba zaharrena izatearen ohitura ez betetzea haustura desegokitzat hartzen zen⁸.

Antzinako Erregimenean neska mutila baino lehenago izaten zen nagusi, eta emazteen egoera gizonekiko parekidea zen guraso-ahalmen eta tutoretzaren jardueran. Eskubide politikoak desagerrarazi zitzaizkien arren, izan badira emazteen bozen arrastoak euskal eta piriniotar herri zein herrialdeetako biltzarretan.

8. M. J. Capdevielle-ren —Bagaulako alaba, Atharratzen— lekukotasunaren arabera.

Eremu penalean, ohiturek oso gogor zigortzen zituzten emazteen aurkako erasoak. Lapurdin eta Zuberoan bortxaketak heriotza zekarren, burua moztuz. Nafarroa Beherean «Bortxatzaileei, bahitzaileei eta neska zein mutilen seduktoreei (...) heriotza-zigorra ezarriko zaie»⁹ (Goyhenetxe, 1985: 251).

Eremu ekonomikoan, Jose A. Azpiazu historialariak (1995) zera aipatzen du: XVI. mendean, emazteen aurkako biolentzia izugarria zenean, emazteek rol garrantzitsua izaten zuten Gipuzkoako ekonomian, nagusi-karguak izaten zituzten negozioetan, artesaugintzan, garraiogintzan (ezkongabeek ere, nahiz eta estatus hori devaluatua izan). Zalantzarik gabe, euskal ohitura zaharren substratuak ardurak hartzeko prestatzen zituen emazteak.

Erljiioaren eremuan: usu serorek abadeen estatus parekidea izaten zuten; izan ere, emazteen rolak gizonezkoenak baino garrantzitsuagoak izaten ziren hainbat erritutan, hiletetan eta (Duvert; Barandiaran, 1993; Azpiazu, 1995).

Ahozko literaturan, orobat, emazteen ekarpena ondo dokumentatuta dago (Orpustan, 1996).

Emazteek gorde zituzten euren eskubideak eta antzina-antzina lortutako lekua, baina hainbat gizonen aurka eta, batez ere, kleroaren boterearen aurka borrokatuz. Adibide egokia da hauxe: Marguerite Bustanobykoak, Zuberoakoak, jarri zuen helegitea —Jean-Pierre Dupuis Altzürüküko notarioak jaso zuena (1739)— 1720-1730 bitartean, bere osaben aurka —bi abadeak ziren—, zeintzuek amari kendu baitzioten jabetzea, nahiz eta ama «oinorde estatutarioa» izan. Marguerite-k epaia irabazi zuen, XVI. mendeko Zuberoako ohiturari jarraituz, amaren etxea agertzen baitzen garai hartan artzain-etxe (*maison pastère*) gisa errolatuta eta, beraz, zaharraren oinordetzaren legeari lotuta!

Adierazle ugari frogatzen dute emazteen egoera degradatua izango dela XVII. eta XVIII. mendeetan. Eta XIX. mendean, estatu frantsesak eta espainiarrak antzinako eskubideak desagerrarazi zizkieten.

1.5. *Olha* edo udako kabana, Zuberoako mendietako artzainen antolaketa parekidea

Hasieran Txomin Peillenek eta haren aitak aztertu eta nabarmendu zuten (Dendaletxe, 1975) eta, geroago, Sanda Ott-ek landu zuen (1993). *Olha* antolaketa kolektiboa eta erabat originala izan zen: ez zegoen nagusirik, boterearen txandaketan oinarrituta, *aldizka*, bakarra Europan. Artzainek funtzio desberdina betetzen zuten asteko egun bakoitzean eta, mendiko egonaldia bukatutakoan, gaztak banatzen zituzten era paritarioan, nahiz eta artaldearen garrantzia bera ez izan.

2. Exogamia-printzipioa eta ezkontza-araua. Euskal ahaidetasun-sistema

Euskal Herriko nekazaritza-eremuetan emazteak eta gizonak estandar sozial berean daude kokatuta, zaila da frogatzea «gizonek emazteak elkarri ematen zizkietela» Lévi-Strauss-en adierazpenei jarraituz.

9. «Tous les violeurs, ravisseurs et séducteurs de fils et filles (...) seront punis de mort».

Exogamia-printzipioa eta ezkontza-arauak ez ziren gizonak/emazteak aurkaritzan oinarritzen, (premu) zaharrak / (premu ez diren) gazteak aurkaritzan baizik. Euren artean ematen zuten elkar edo, zehatzago, etxeek trukutzen zituzten, harremanak sortuz.

Arlo politiko eta sozialaren giltza, antzina-antzinako jendarte horretan, gazteen dohaintzan datza. Batzuek aipatu dute harreman asimetrikoak daudela gazteen eta zaharren artean, baina horren xedea euren artean ezkontzeko bi jende mota sortzea zen: horixe aliantzaren matematika berezia. Ez du zentzu handirik, beraz, gazteen alde egitea injustizia edo bazterketa dela baieztatzeak.

Izan ere, jendarte gehienetan moduan, intzestuaren tabua euskal jendartean ahaidetasun berezko sistemaren arau zehatzean datza.

2.1. Debekuaren ereduak

Sexu-harremanak etxean oinordetza duen bikoteari baino ez zaizkie onartzen. Zelibatoa, debekuaren gauzatzea, ezinbestekoa da etxean geratzen diren premu ez diren neba-arrebentzat. Ez zaie onartzen ezkontzea eta, are gutxiago, ugaltzea; etxeko egitura-planari begira, leinuaren nahasketa ekar dezakeelako. Joera hori etxeko autoritatearen naturari lotuta dago: jabetza ez dagokio aitari edo neba/anaia zaharrari, agintzen duena eta (ab)izena ematen duena, etxe komunitario patriarkaletan gertatzen den moduan, non neba/anaia ugari bizi daitezkeen etxe berean; aldiz, euskal etxea jabetza konpartitua da (jabekidetasuna da).

2.1.1. Banatzea: joko psikiko eta soziala

Testuinguru antzekoan ordena bat eratu ahal izateko, bereizte, "tri" bat ezartzen da fratriaren barruan. Bera da dialektika simetrikoaren **gelditu** (Lehena) eta **alde egin** (Gazteak), zeintzuk domonimoek eutsi egiten baitieten leinuak ezar daitezkeen.

Ikuspuntu honetatik uler dezakegu (salbuespenak egonda ere) premuen arteko ezkontzak ez zirela ondo etorriak, salbu premu-izaerari eta *etxe*-izenari uko eginez gero. Era berean, lurrak, etxeak eta izenak espekulaziotik babesten ditu «leinuen atzera eskuratzeko eskubideak» (*retrait lignager*) (aurretik saldua izan den kasuetan, familiaren etxea berreroesteko ahalmena, eta saldua izan zen prezioan, berrogei urte geroago Zuberoan eta laurogeita hemeretzi urte geroago Lapurdin).

2.1.2. Debekuaren xede politikoa

Debekuaren ezarpen berezia dakarren aliantza-formulan, berez, jendartearen eskala orokorrean, jende oro dago deituta berdina izatera, nahiz eta, egoerak egoera, helburu hori ez zen betetzen. Ez zen bazterketa-printzipiorik.

Etxeen arteko berdintasuna herri-biltzarretan bermatzen zen eta jendarte horren oinarri politikoa ugaltze-ahalmena duten helduen taldearen *germanité* bat zela esan dezakegu. Ahaidetasun-sistemaren azterketak frogatzen du antzekotasun hori.

2.2. Euskal ahaidetasun-sistema

2.2.1. Berezitasunak

Herri zahar guztiek bezala, eta ahaidetasun kristaua erabat barneratu gabe, euskaldunek euren berezko eredua izan dute (Lagarde, 2006).

Eredu hori agertzen da sistema batean, zeinetan ildo batzuk XX. mendearen bukaera arte gorde baitira. Ildo horiek ez dira ahaidetasun kristauaren berdinak, azken horretan ahaidetasuna odolean baino ez da finkatzen. Hurbilekoak edo lagunak —*affins* edo *alliés*— ez dira ahaideak, baina bai etxeakoak.

Paradoxikoki, euskal jendarte tradizionalak, katolizismoari erabat lotuta, ez du bere egin jatorri klerikala duen *una caro* ('aulki bera eta bakarra'). Printzipio horren arabera, bai sexu-harremanak bai ezkontza intzestutzat hartu eta zigortuko dira, bi pertsona berdin edo oso antzekoak badira, «aulki bera erabiltzen dutelako». Eraketa ideologiko hori, hots, senar-emazteak aulki bakarra direla baieztatuz, baizik eta «*Ego*-ri lotutako ahaideen identitate komuna (...), bai odol berekoak, bai hurbilekoak, zeintzuk, mendeetan, *Egotik* gero eta urrunago kokatzen baitira»¹⁰ (Godelier, 2004: 355).

2.2.2. Ahaidetasunaren lexikoa

Xede parekidea frogatzen du. Gurasoak eta aitona-amonak ahaidetasunaren maila berean zeuden, aitona bere iloben osabaren parekoa baitzen, izenez.

Kontuan hartzen badugu antzinako izena *asaba*, Julio Caro Barojarekin (1977: 201-202) batera esan dezakegu oso hurbil dagoela *osaba* (ama edo aitarena) izenetik.

Aitajaun ('aitona') izena *asabaren* ordeaz, edo *amandre* ('amona') berantiarra-goak dira, eta *osaba* eta *iseba* aztertzen baditugu, bien femenimoa ikus dezakegu, izeba eta amona, beharbada, izendatzeko balio direnak.

Hurrei deitzeko izenak ahaidetasun-ezaugarri bera dakarkigu: *ilobak*, izen bakarra bi harreman mota izendatzeko, aitona-amonekin zein izeba-osabekin.

2.2.3. *Biologia dela-eta, ahaidetasunaren eraketa politikoa*

Ahaidetasunaren lexikoak frogatzen du ahaidetasun biologikoa kulturalki «zuzendua» izan dela: bi belaunaldien zutabeak, gurasoak eta aitona-amonak, bakar batean zertzen dira izendatzea dela medio, biak berdinduak izango dira haurrarekiko harremanetan. Horrek «kojabetza» psikologikoki ere eratzen zuen prozesua argitzen du.

Ugaltzen ez zutenak eta haurrak maila berean zeuden, sinbolikoki. Bi jende mota agertzen dira:

- Nagusiak, estatus politikoa dutenak: gurasoak eta aitona-amonak, «jabe-kideak».

10. «... commune identité (...) des parents liés à Ego par des liens de consanguinité ou d'affinité qui, au cours des siècles, se situèrent de plus en plus loin d'Ego».

- Mendekoak, estatus politikorik gabe: umeak. Izeba/osaba ezkongabeak, *haur* bihurtuta (*infans*: 'ezdamintzatzen') politikoki.

3. Lege sinbolikoa eta jende-berdintasuna: hizkuntzaren kontua

Arestian ikusi dugu nolako eragina duen lege sinbolikoak islatzen duen tabuak euskal jendartean. Bi sexuen arteko desberdintasuna eskainiz, lege horrek, dakigun moduan, soziala sortzen du. Edo, euskal jabekidetzaren instituzioa, bere logika parekideari jarraituz, sexuen arteko bereizle bat garatzen ez du ohiko gune soziopolitikoetan.

Antolaketa sozialaren printzipio hau zehazteko, hizkuntza aztertuko dugu (Lagarde, 1995).

Femenino eta maskulinoaren azterketak zera erakusten digu: jendarte honetan sexu-identitateen eraketa **HI** bigarren pertsonako izenordainaren erabilerari lotutako prozesu diskurtsiboari esker egiten dela. **HI** izenordain zaharrena da (Azkue, 1905).

3.1. Femenino eta maskulinoaren adieraztea euskarari

Femeninoa eta maskulinoa adierazteko, euskarari ez du eragiten gainerako hizkuntza indoeuroparrek bezala, azken horiek generoa izenaren sisteman finkatzen baitute.

Euskarari diskurtsoan bereizten ditu, singularreko bigarren pertsonako izenordain zaharrenari esker: **HI**, batere **ZU**-rekin parekatuz, ezin itzultzen ahal orokorrean beste hizkuntzetan.

Beste modu batez esanda, pertsona bat beste batekin **hikaz** mintzatzen bada, erabiltzen duen esaldiaren aditzari hartzaillearen sexuaren marka gehitzen dio: **-k** hartzaillea gizonezkoa bada, eta **-n** andrazkoa bada (Lafon, 1957, 1961).

3.1.1. Sexu-identitatearen markatzaileak eta gramatika-testuingurua

-k eta **-n** markatzaileak era simetrikoan agertzen dira, bai **HI** izenordaina *ukan* aditzaren subjektu aktiboa (ergatiboa) denean, hots, bigarren pertsonako esaldietan, bai singular edo pluraleko lehenengo eta hirugarren pertsonako esaldietan, berdin zer aditz erabiltzen den.

Salbuespen gisa, **HI**-k ez ditu bi marka horiek hartzen bigarren pertsonako esaldietan *izan* aditzaren subjektua denean; kasu horretan gizonezkoak eta emazteak (maskulinoak eta femeninoak) batu egiten dira izaera bakar batean, izate komunean: «Hi hiz».

3.1.2. Forma alokutiboaren rola 1. eta 3. pertsonako esaldietan

René Lafon-en arabera (1980: 407), forma hauek, euskararen «erabateko joskera» (*un jeu complet*) adierazten dutenak, aukera ematen diote igorleari «hartzaillearen pertsona agerian uzteko, nahiz eta hura ez izan subjektua, pasiboa edo eragilea, ez erreferentziazko objektua»¹¹.

11. «...représenter la personne de son interlocuteur alors que celui-ci ne participe au procès ni comme sujet ou patient, ni comme agent, ni comme objet de référence».

Hirugarren pertsonako esaldi bat har dezakegu adibidez:

‘Hori mahaia da/dun/duk’

Hartzailea emaztea bada, horrela itzuliko dugu:

‘Hori mahaia dun’ (Emaztea, hauxe da mahaia)

-**n**, femeninoaren marka **du-** adizkiari uztartu egiten zaio.

Prozesua berdina da gizonezkoa izanda: maskulinitatearen ezaugarriaren adiera (**-k**) uztartu egiten zaio adizkiari:

‘Hori mahaia duk’ (Gizona, hauxe da mahaia)

Argi dago alokutiboaren erabileraren helburua hartzailea kontuan hartzea dela, haren ezaugarri femeninoa edo maskulinoa adieraziz.

XVIII. mendean, Sarako Etcheberriek azpimarratzen zuenez, forma hauek —**toka-noka**— latinaren bokatiiboaren bidez itzul daitezke eta tituluekin aldera ditzakegu.

3.1.3. Nabarmentzeko prozesu simetrikoaren sistematizazioa

Ukan eta *izan* adizkien joskerak (gainerakoena bezalakoa) sexu-identitatea emateko prozesuaren izaera sistematikoa azalartzen du, bai orainaldian bai etorkizunean bai iraganean. Hona hemen **IZAN** aditzaren oraina, zubereraz:

IZAN

Ni **nük** (gizonezko batekin mintzo) / Ni **nün** (emazte batekin mintzo)

Hi hiz (forma bakarra maskulino zein femeninoarentzat)

Hura **dük** (gizonezko batekin mintzo) / Hura **dün** (emazte batekin mintzo)

Gü **gütük** (gizonezko batekin mintzo) / Gü **gütün** (emazte batekin mintzo)

Ziek zide (zuek zarete)

Haiek **dütük** (gizonezko batekin mintzo) /Haiek **dütün** (emazte batekin mintzo)

Mekanismoa bera da **UKEN** aditz laguntzailearentzat (aditz horren joskeran subjektuak —**NI, HI...**— ergatiboaren marka, **-k**, darama):

UKEN

Nik di**(k)**at / Nik diñat

Hik **dük**/ Hik **dün**

Hurak di**k**/ Hurak **din**

Gük di**(k)**agü / Gük diñagü

Züek düzüe

Haiek di**(k)**e/ Haiek diñe¹²

12. Zehaztapen fonetikoak: -a eta -i bokalen artean, maskulinoa -k- desager daiteke ahoskatzean eta femeninoaren -n- > -ñ- bihurtu, baina femeninoaren eta maskulinoaren arteko aurkaritzak dirau.

3.1.4. Nabarmentzeko prozesu simetrikoaren intentzionalitatea

Toka-noka marka hauen banaketak intentzionalitatearen muga adierazkorrak agertzen ditu.

Izan ere, hainbat sintaxi-kasutan (galderak, harridura-esaldiak, mendeko esaldiak), hainbat aditz-modutan (subjuntiboa, agintera) edo irrealari buruzko aipamenetan (proposamen hipotetikoak), oro har, asertibitatea kuestionatzen denean, ez dira forma alokutiboak erabiltzen (Rebuschi, 1984: 549-566), haien erabilera baldintzatua izango balitz bezala.

Forma hauen xedea identitate sexuatuak nabarmentzea denez gero, haren asertibitatea gutxitzen duen oro alboratua izaten da (Lagarde, 2003: 259-278).

Nahitazko ibilbide linguistiko honek generoen arteko berdintasuna ezarri nahi du, femenino eta maskulino tituluaren parekidetasuna erabiliz.

3.2. Intzestuaren debekuaren legearen bereganatze kolektiboa eta koherentzia sistemikoa

Toka-noka prozedurak sexuak modu erabat simetrikoan bereizteko aukera ematen du, horrela, lege sinbolikoaren bereganatze kolektiboa eskainiz.

Era horretan, diskurtsoaren araberrako sexu-identitateen eraketa egiten da, genero batek bestea menderatu gabe. Gizonak eta emazteak «jabekide» bihurtzen ditu hizkuntzak. Hark sortzen duen dialektika parekidea jendarte osora zabaltzen da.

Ez dago **toka-noka** antzekorik ezagutzen eta ikasi diren gainerako hizkuntzetan (Alberdi Larrizgoitia, 1994) ezta Mendebaldeko sistema juridikoetan nagusi, gazte eta zaharren arteko jabekidetzak antzekorik ere (cf. 2.2.2.). Bi ezaugarri horiek batera egotea Euskal Herrian —eta hemen baino ez— esanguratsua da eta koherentzia sistemikoa eskatzen du; koherentzia hori etxe barruan norberak duen tituluak eskaintzen du.

3.3. Tituluaren logika

Berdin euskal etxean zein bearnotar edo goi-piriniotar etxeetan, bakoitzari ere jaiotzaren estatusaren araberrako tituluak ematen zaio (euskaraz: *etxeko prima* / *etxeko primu* —neska edo mutila—, *etxeko alhaba* / *etxeko seme*, *etab.*).

Tituluok (euskarak dituen sexu-identitatearen oinarritzko tituluaren osagarri), ezkondu ostean ordezkatuak izaten ziren (*etxeko andere* / *etxeko jaun*). Prozedura hau euskal-piriniotar sistema soziopolitikoaren ardatza izan zen.

3.4. Euskal jendartea eta bearnotar edo goi-piriniotar jendartea

Jatorri berekoa izan arren, denboran aldaketa garrantzitsu bat gertatu da; izan ere, euskal unibertso soziolinguistikoko gorde diren emazteen eta gizonen arteko «jabekidetzak», **toka-noka** hizkuntza-formetan islatuta, bertan behera gelditu dira Bearnon eta erdialdeko Pirinioetan, non erromatar hizkuntzara jauzi egin zuten (Luchoire, 1877; Orpustan, 1999).

Edo, diskurtso parekideak, ainguraketa hori gabe, desager daitezke; belaunaldien arteko mekanismo bereizgarria agertu baita.

Aitona (edo aita) da autoritatearen bermatzailea, eta jaiotza-estatusa baino ez da kontuan izan, horrek dakarren goitik behera eratu den hierarkiarantz alboratzeko arriskuarekin. Ez dago sexu-bazterketarik, baina sakrifizioa dakarren banaketa batera joan da, non (premu ez diren) gazteak, «esklabo» eta «antzuak» (cf. 1.2.3.) diren edo *gendres sans gloire* ('aintzarik gabeko suhiak').

Beraz, (premu ez diren) mutil gazteak izango dira estigmatizatuak. Femenino debalatu baterantz baztertuta izango dira eta (premu) zaharrena izatearen nagusitasunak aurrera egingo du, botere maskulinoarekin parekatzen direlako neska nagusiak. Horiekin ezkontzen direnak kabyle jendartean *ceux qui font la mariée*-ekin alderatuta izango dira (Bourdieu, 1972: 107).

3.5. Toka-noka etorkizuna

Nolabaiteko orokortasuna ahalbidetzen duten euskal forma femenino eta maskulinoetara itzuliz, hiru mende igaro ondoren, haien aurkako gerra izugarria jasan izan dutela ikus dezakegu. Haien aurka borrokatu ziren hainbat apaiz gramatikari XVIII.-XIX. mendeetan, Añibarro beste beste (Alberdi Larrizgoitia, 1969).

Gaur egun, **toka-noka** formak aurreiritzi orokor batek zapaltzen ditu, eta, horrez gain, erabilera linguistikoak mehatxatzen ditu —batez ere, ohikoa denez, **noka** edo forma femeninoa—. Antzinako forma **HI**, Euskal Herriko herrialde guztietan dena, baztertu zuten Erdi Aroan, eta **ZU** formak ordezkatu zuen geroago, XIX. mendean. **ZU** izenordaina erabiliz (bigarren pertsona singularra, baina pluralean jatorriz) begirunea adierazi nahi zuten, sexu-marka ezabatuz.

HI izenordaina, arrunkeria leporatuta, garbiketa linguistikoaren biktima izan zen eta txarto ikusita egon zen Euskal Herriko hainbat lekutan, eta, harekin batera, islatzen zuen eredu sinbolikoa.

Hark pairatu zituen gorabeherak topa ditzakegu egoera parekidearen atzerabidean eta menderatze maskulinoaren ezarpena euskal jendartean.

Ondorioak

Ez du zentzurik euskal jendartea epaitzeak gaurko Mendebaldeko jendarte moderno masifikatuaren parekidetasun-egoeraren arabera. Azken horiek isolatu egiten dute norbanakoa, euskal artzain-jendarteak bikoteak nabarmentzen zituen eta, kolektiboki intzestuaren debekuaren legeari eutsiz, onartu egiten zuen aitaren ugaltze-rola. Baina, jendarte patriarkaletan ez bezala, rol hori nabarmendu ahal izan zen erakundeetan gizonen menderakuntza ezarri gabe.

Euskal parekidetasunaren eta gaur egungo parekidetasunaren arteko amildegia dirau, euskal jendarteak nabarmendu egiten du sexuen arteko desberdintasuna, eta jendarte modernoek «berdindu» egiten dituzte.

Antzina-antzinako jendarte honetan sexu-identitateen eraketa diskurtsoen bidez egiten zen, euskarak duen berezitasun bati esker, zeinek emetasuna eta artasuna bereizi egiten baititu, modu parekidean.

Parekidetasuna, sexu-nahasketarik gabe, belaunaldiz belaunaldi igortzen zen jabekidetzatza zela medio, eta bertan topatzen da jendarte euskaldunaren muina. Etxeetan izaten zen, baita herri-batzarretan ere. Horrelako aukera politikoak bultzatzen zituen jendarteak aurrera egin zezan, arau bat ezartzen zen: (premu ez diren) gazteen alde egitea. Exogamia-printzipio hau funtsezko baldintza zen, (premu) zaharrenekin berdintasunean aritzeko, arauak haiekin ezkontzeko baldintza ezartzen zuen. Geroago, egoeren arabera, denek ez bazuten jabekidetzatza-estatusa lortzerik, printzipioz ezerk ez zuen xede hori oztopatzen.

Jaiotza-determinazioa baino gehiago, premutza-titulua bat zen: (jaiotzez premu ez zen) neska edo mutil gazte bat edo etxetik kanpoko pertsona bat izan zitekeen oinorde.

Sistema hori leinuen etxeak osorik irauteko pentsatuta zegoen. Seme edo alaba «zaharrek» gordetzen zuten «zilbor-hestea» eta «gazteek» apurtu behar zuten, kanpoan topatzeko.

Elkar ematearen logikak, hizkuntzan zertua (*euskara emaita*) eremu sozialean, irauten zuen.

Asmoa zoriontasunaren gogo murriztea zen, jende kopururik handienak bizi ahal izatea.

Oraindik ere, horixe da Ipar Euskal Herriko hainbat nekazariren pentsaera.

Euskararen diskurtso-ezaugarriak, berezkoak dituen forma maskulinoak eta femeninoak izanda, antzina-antzinako historia soziolinguistikoan sartzen gaitu eta oroitezinak diren denboretara eramaten gaitu, non garaiko gizon eta emazteek berezkoa zen jende-hitzarmena asmatu baitzuten.

Euskal jabekidetzatza edo *gylaniaren*¹³ zutabea hizkuntza zen eta horrek bestearen gaineko oso ideia originala sortzen zuen, hau da, sexuak zekarren alterioritatearen arrastoa.

Euskal eredu sinbolikoaren jatorria, berdina herrialde guztietan, amarenganako lehenetasunean dago kokatuta, berak gordetzen ditu euskal sinesmen zaharrak (Gratacos, 1987; Hartsuaga, 1987; Peillen, 1987; Ortiz-Oses, 1988; Barandiaran, 1993) eta artzainen errituak (Ott, 1993; Lagarde, 2003: 180-206), XX. mendean ere. Berak azaltzen du, jendarte honetan, emazteak ez direla gutxiagotuak izan, denboran zehar haien estatusak behera egin duen arren¹⁴.

13. R. Eisleren hitzaren arabera (Gimbutas, 1996: 20).

14. Baina, alaba oinordeen garrantzia (neba txikiagoa izan ala ez) dokumentatuta dago Zuberoan XX. mendearen lehenengo zatian: eztei-festetan haiek zeuzkaten, txikiak zirenetik, ohorezko leku bereziak, mahaian, batez ere. Honen berri Madeleine Carriquiry-k eman digu, Goihenetxeko (Liginaga) premua, bost urterekin halako ohorea izan zuena, eta oso ondo portatu zela gogoratzen duena.

SINTESIA
Euskal jendarte lokarriaren logika

Jendartearen jatorria	
Lege sinbolikoa (sexu diferentziazioa): <i>noka-toka</i> (performatiboa)	
Jendartearen dialektika	Politikaren dialektika
<p>1. Exogamia Aurkaritza: Alde egin (haur gazteak) / Egon (premuak) (berdintasuna sexuen artean)</p> <p>2. Aliantza edo ezkontza-sistema – <i>Etxeko Seme + Alaba Prima</i> – Edo <i>Etxeko Alaba + Seme Primu</i> (parekidetasuna sexuen artean)</p> <p>3. Ahaidetasun-sistema – Oinarrizko ahaidetasuna: *Ahizpa/Arreba/Neba/Anaia – Ahaidetasunaren bi mailak: *Gurasoak (gazte edo zahar) *Haurrak (gazte edo zahar)</p> <p>4. Jendartearen hedapena Oinordetzaren Legeak: 1. Sinkronian: ugaltzailearen berdintasuna belaunaldien artean («Jaun andere zahar zein gazteen artean»).</p> <p>2. Diakronian: «Primatasun orokorra» (berdintasuna sexuen artean). Leinuaren egitura.</p>	<p>1. Sexuen noblezia Oposizio: -n femeninoa / -k maskulinoa, tituluaren gisa. Generoen dominaziorik gabe (sexuen jabeakidetzaren linguistikoa).</p> <p>2. Ugaltzearen noblezia Ezkontzako tituluak: gurasoen jabeakidetzaren – <i>Etxeko Anderea / Etxeko Jauna</i> – <i>Jaun-Andere zaharrak / Jaun-Andere Gazteak</i></p> <p>3. Haurren noblezia edo jatorrizko tituluak – Nobleziaren bi mailak: *<i>Etxeko prima-primu</i> *<i>Etxeko seme-alaba</i></p> <p>4. Etxearen noblezia (edo jabeakidetzaren politikoa etxean artean) 1. Sinkronian: Boz bat etxe bakoitzarentzat herriko juntetan. 2. Diakronian: Etxeko izena leinu bakoitzarentzat (edo etxeko nobleziaren transmisioa).</p>

Bibliografia

I. Antropologia/Etnologia/Soziologia/Historia

- Azpiazu, J. A. (1995): *Mujeres vascas, sumisión y poder*, R&B, Donostia.
- Bourdieu, P. (1972): «Les Stratégies matrimoniales dans le système de la reproduction», *Annales, Economies, Sociétés, Civilisation*, **4-5**, 1.105-1.127.
- _____, (1972): *Esquisse d'une théorie de la pratique*, Librairie Droz, Geneva/Paris.
- _____, (2002): *Le Bal des célibataires*, Seuil, Paris.
- Caro-Baroja, J. (1977): *Los Pueblos del Norte*, Txertoa, Donostia.
- _____, (1974): *De la vida vasca (Vera de Bidasoa)*, Txertoa, Donostia.
- Dendaletche, Cl. (1975): *Montagne & Civilisations basques*, Denoël, Paris.
- Godelier, M. (2004): *Métamorphoses de la parenté*, Fayard, Paris.
- Héritier, F. (1996): *Masculin / Féminin*, Odile Jacob, Paris.

- Lauburu (1980): *Etxea ou la maison basque*, 2. ed., Donibane Lohizune.
- Le Play, F. (1994): *Les Mélouga, une famille pyrénéenne au XIXe siècle*, textes réunis par Alain Chenu, Nathan, Paris.
- , (1855): *Les Ouvriers européens*, T4, Alfred Mame & Fils, Tours.
- Levi-Strauss, Cl. (1949): *Les Structures élémentaires de la parenté*, Mouton, Paris.
- , (1958): *Anthropologie structurale*, Librairie Plon, Paris.
- Oliveri Korta, O. (2001): *Mujer y herencia en el estamento hidalgo guipuzcoano durante el Antiguo Régimen*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.
- Orpustan, J. B. (1986): *Nom et statut de la maison basque au Moyen-Age*, Th. d'Etat, Bordeaux III, 3.
- , (1996): *Précis d'histoire littéraire basque*, Izpegi, Baigorri.
- Otazu de Riana, A. (1973): *El 'igualitarismo' vasco: mito o realidad?*, Txertoa, Donostia.
- Ott, S. (1993): *Le Cercle des montagnes*, CTHS, Paris.

Antropolinguistika

- Lagarde, A. M. (1995): *Allocutivité et pratiques sociales en Pays Basque*, Mémoire de DEA, UPPA, Faculté Pluridisciplinaire de Bayonne, Etudes Basques [argitaratu gabea].
- , (2000): *L'Univers psychique des Basques: une instauration de la symétrie des sexes* (Expression sociale et linguistique), Thèse de Doctorat de l'UPPA, Département d'Etudes Basques, Diffusion, Presses Universitaires du Septentrion.
- , (2001): «Euskal Jendarte tradizionalaren izaera», in *La mujer en Euskal Herria*, Basandere, Donostia, 105-127.
- , (2003): *Les Basques, société traditionnelle et symétrie des sexes*, L'Harmattan, Paris.
- , (2006): Loi de prohibition et statut traditionnel de la femme basque», *Bulletin du Musée Basque*, **H-S**, 37-78.

II. Linguistika, Gramatika

- Alberdi Larrizgoitia, X. (1994): *Euskararen tratamenduak: erabilera*, doktoregoko-tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea, Gasteiz/Vitoria.
- , (1969): «Añibarro Gramática vascongada», *ASJU*, **III**, 3-170.
- , (1986): «Euskarazko tratamenduen ikuspegia: I. Historia apur bat», *ASJU*, **XX-1**, 161-162.
- , (1986): «Alokutibotasuna eta tratamenduak euskaraz...», *ASJU*, **XX-2**, b, 419-436.
- , (1993): «Hika tratamenduaren balore sozio-afektiboak», *FLV*, **XXV**. urtea, **64**, 425-440.
- Azkue, J. M. (1905): *Diccionario vasco-español-francés*, HI artikulua, 1993, Bilbo, Euskaltzaindia.
- Lafon, R. (1957): «Remarques sur l'emploi du masculin et du féminin en basque», *Via Domitia*, **4**, 1- 10.
- , (1961): «Place de la deuxième personne du singulier dans la conjugaison basque», *BSL*, **LVI-1**, 1, 139-162.
- , (1980): *Le Système du verbe basque au XVIe siècle*, Elkar, Donostia-Baiona.
- Luchaire, A. (1877): *Les Origines linguistiques de l'Aquitaine*, Véronèse, Paue.
- Orpustan, J. B. (1999): *La Langue basque au Moyen Age (IXe-XVe siècles)*, Izpegi, Baigorri.
- Rebuschi, G. (1984): *Structure de l'énoncé en basque*, Selaf, Paris.

III. Ikerketa juridikoak/Foroak/Testu zaharrak

- Bachofen, J. J [itzulpena eta sarrera: Barilier, E] (1996): *Le Droit maternel, Recherche sur la Gynécocratie de l'Antiquité dans sa nature religieuse et juridique*, L'Age d'Homme, Lausana.
- Dupuis, J. P. (1739), *Minutes notariales* III E 1280, vues 110-124, <arch-bay@cg 64.fr>.
- Cordier, E. (1869): «De l'organisation de la famille chez les Basques», *Bulletin de la Société Ramond*, Tolosa, 89-109.
- , (1869): «Le Droit de famille aux Pyrénées», *Bulletin trimestriel de la Société Ramond*, Tolosa, 50-74.
- Galindez, J. de (1948): «Valor de los Fueros Vascos considerados según las circunstancias históricas que les dieron origen», *VIII Congrès d'Etudes Basques, Biarritz, 2003*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 623-638.
- Goyhenetche, J. (1985): *Fors et Coutumes de Basse-Navarre*, Elkar, Donostia-Baiona.
- Grosclaude, M. (1993): *La Coutume de Soule*, Izpegi, Baigorri.
- Lafourcade, M. (1980): «Dans l'Ancien-Régime: l'Étze, axe du système juridique basque d'après la Coutume du Pays de Labourd», *Etxea*, Lauburu, 2. ed., Donibane Loizune, 41-59.
- , (1989): *Mariages en Labourd sous l'Ancien-Régime*, EHU/UPVko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo.
- , (1994): *DEAko Euskal Zuzenbideko kurtsoa: Euskal Ikasketak*, UPPA, Baionako Fakultatea.
- , (2007): «La Résistance des Basques à la pénétration du Droit romain. L'exemple du Pays Basque de France», *RIEV*, **52-1**, 81-94.
- Morère, M. (1967): «Quelques aspects de la condition des femmes dans les fors pyrénéens», *Bulletin de la Société des Sciences Lettres et Arts de Pau*, **167**, 77-86.
- Poumarède, J. (1972): *Les Successions dans le Sud-Ouest au Moyen-Age*, PUF, Paris.

IV. Mitologia, Erlijoen Historia

- Barandiaran, J. M. (urtea ?): *Mythologie basque*, Annales pyrénéennes, Tolosa.
- , (1993): *Dictionnaire illustré de mythologie basque* [itzulpena eta notak: Duvert, M.], Elkar, Donostia-Baiona.
- Gimbutas, M. (1996): *El Lenguaje de la diosa*, Dove, Madril.
- Gratacos, I. (1987): *Fées et gestes, Femmes pyrénéennes...*, Privat, Tolosa.
- Hartsuaga, J. I. (1987): *Euskal mitologi konparatua*, Kriselu, Donostia.
- James, E.O. (1989): *Le Culte de la déesse-mère dans l'histoire des religions*, Le Mail, Paris.
- Peillen, Tx. (1987): «Mythologies pyrénéennes», *Le Colloque comparatiste*, UPPA (Section d'Etudes Basques), maitzaren15-16a, Paue.
- Ortiz-Oses, A. (1988): *El Matriarcalismo vasco*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.

